

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Miokardio-**infartua** **du**tenak **artatzeko** **protokoloa** **funtsezkoa** **da** **Nafarroak** **estatuko** **hilkortasun-tasarik** **baxuena** **izan** **dezan**

Arlo Kliniko Kardiologikoa 2000. urtean sortu zenetik, Osasunbideko ospitale guztiak barne hartzen dituen laguntza-sare koordinatua garatu da

Jueves, 26 de junio de 2014

Osasunbideko ospitale guztiak barne hartzen dituen sare koordinatu baten bidez miokardio-**infartuak** artatzeko eta tratatzeko Nafarroan ezarritako antolaketa-ereduari esker, Foru Komunitateak patologia hori kausa duten heriotzen **tasarik baxuena** du autonomia-erkidego guztien artean (batez besteko tasa % 6).



Ebakuntza kirurgikoa

Román Lezáun zuzendariak azaldu duenez, 2000. urtean Arlo Kliniko Kardiologikoa sortzeak antolaketa-egitura bat (sarea) eratzea ekarri du. Horri esker, miokardio-**infatuaren** aurkako tratamendu jakinak aplikatu ahal izan dira modu koordinatuan eta aurrez Nafarroa osoan ezarritako protokolo baten bidez. NOGeko A zentroa (lehengo Nafarroako Ospitalea) koronarioen unitatea eta zaintzako kardiologoa dituen erreferentziatzko zentroa da, eta beste hiru ospitaleek, NOGeko B zentroa (lehengo Virgen del Camino ospitalea), Tuterako Ospitalea eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalea, zainketa intentsiboetako unitateak dituzte.

Kontuan izanik herrigune nagusiak aipatutako ospitaleetatik eta Iruñetiko autobide eta autobietarako komunikazio sareetatik gertu eta horien ondoan daudela, ezarritako ereduarekin kasu bakoitzean aplikatu beharreko tratamendua aurrez zehaztu ahal izan da, sintomak hasten direnetik aurreikusitako osasun-arretaren iraupenaren arabera.

Horrek guztiak Nafarroa hilkortasun-tasarik baxuena duen autonomia-erkidegoa izaten lagundu du neurri handi batean, izan ere, % 6 du batez besteko tasa, hau da, estatuko ospitale barruko hilkortasunaren batez besteko tasa baino puntu eta erdi gutxiago. Estatuko batez bestekoa % 7,84 da, Espainiako Kardiologia Elkartearen arabera.